



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2015EKO AZAROAREN 13AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**  
**Hanot Karrera Amondarain**  
**Miren Itziar Arratibel Imaz**

### **Etorri diren zinegotziak:**

Maria Iciar Jauregui Huarte  
Victoria Rodriguez Feloaga  
Eleuterio Sanchez Garcia

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2015eko azaroaren 13an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

## **LEHENA:**

### **1.2015EKO URRIAREN 23KO AKTAREN ONARPENA**

2015ko urriaren 23an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2015ko urriaren 23an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.- 2015EKO AZAROAREN 13AN HIRIGINTZA BATZORDEAK HARTURIKO ERABAKIEN INGURUKO ERABAKIAK**

#### **2.1- IDOIAGA-EUSKAL HERRIA 12 ZKAN APARKATZEA DEBEKATZEA**

Eneko Aranburu Barrenetxeak, Idoiaga garajeetako komunitatearen administratzaile denez, eskatu du Idoiaga kalean garajearen eustormaren gaineko eremuan, aparkalekua kentzea eta Idoiaga plazan soilik ibilgailu bereziei sarrera uztea, anbulantziak kasu.

Idoiaga plazaren berriz hiritartzearen zuzendaritza fakultatiboaren txostena aurkeztu da eta udal arkitektoaren txostena ikusirik.

2015eko azaroaren 13an eginiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

LEHENENGOA: Debekatzea aparkatzea Idoiaga kalean garajearen eustormaren gaineko eremuan. Debekua adierazteko marra oria pintatuko da lurrian. Bolardoak eserleku eta goitik beherako lorontzien artean jarriko dira eta Erre-Berri okindegiko obradorearen ateurrean bi lorontzi bertikalen artean katea jarriko da bakarrik zamalak egiteko aukera emanez.

BIGARRENGOA: Okindegiko jabeari, Lourdes Medrano Menari, jakinaraztea ez duela baimenik okindegiko ateurrean aparkatzeko eta toki hori zamalanetarako dela soilik,

HIRUGARRENA: Idoiaga plazan ibilgailuak galarazteko elementuei dagokienez, ezetsi egiten da eskaera, izan ere, daudenak aski dira jarritako aparkatze arauak betez gero.

LAUGARRENGOA: Erabaki hau jakinarazi Eneko Aranburu Barrenetxea jaunari.

#### **2.2- EUSKALERRIA 18-1 ZKAN BI ETXEBIZITZA FAMILIEN BEHARRETARA FUNTZIONALKI EGOKITZEKO KONTSULTA**

Aitor Baraibar Otañok kontsulta egin dio Ibarra udalari bi etxebizitza libre lotzeko Euskalerrria 18-1 zkan eta etxebizitza bakarra egitea bi logela baino gehiagorekin bere ama bertan jasotzeko.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Etxebizitza bakarra erregistroan ezin bada sortu, adierazten du funtzionalki lotzeko aukera familiaren beharrei erantzuteko.

Ikusita udal arkitektoaren aldeko txostena.

2015eko azaroaren 13an eginiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### ERABAKIA

LEHENA: Alde informatzea beharrezko obrak egiteko eta bi etxebizitzak funtzionalki familiaren beharrei erantzuteko Euskalerrria 18-1 zk.an. Horretarako lizentzia eskatu beharko du eta egin beharreko obra arrazoitu.

BIGARRENA: Ezestea erregistroan bi etxebizitzak batzeko aukera , Tokiko Gobernu batzordeak 2015eko martxoaren 24an harturiko erabakien arabera.

HIRUGARRENA: Erabaki hau jakinarazi Aitor Baraibar Otaño jaunari.

### **3.- 2015EKO AZAROAREN 6AN INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEAK HARTURIKO DIKTAMENEN INGURUKO ERABAKIAK.**

#### **3.1 HERRI BIDEEN INBENTARIO. AURREKONTUAK**

2005eko abenduan Geograma S.L. enpresak Ibarra herri bideen inbentarioa egin zuen GIS teknika aplikatuta. Geroztik inbentario hori erabili da herri bideen inguruko informazioa behar izan denean, eta akatsen bat edo beste dagoela ikusi du.

Inbentario hori gainbegiratze eta zuzentze aldera, ingurumen, merkataritza eta Nekazaritza departamentutik aurrekontua eskatu zaie Sendo S.L.ri, Kontxi Uriarteri eta Geogramari.

Kontuan hartuta Sendo S.L.k 13.915 euroko aurrekontua aurkeztu duela eta Kontxi Uriartek 6.534 eurokoa, biak BEZ barne.

Kontuan hartuta Geogramak ez duela aurrekonturik aurkeztu.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Kontuan hartuta Kontxi Uriartek bere proposamena Ibarra errealitatera egokitu duela, aurrez inbentarioa badagoela argi utzita eta berau oinarri hartuta lan egingo duela azalduz baseritarrekin elkarrizketa zuzenak eginez, Tolosako artxibo historikotik datuak bilduz, eta abar.

Kontuan hartuta Sendo S.L.k inbentarioa egiteko GIS teknika erabiltzea proposatzen duela, 2005ean Geogramak egin zuenaren antzera.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak 2015eko Aurrekontu Orokorreko 1.0000.602.454.00.01 partidari 7.000 euro dituela inbentarioaren gainbegiraketa hori finantzatzeko.

2015eko azaroaren 6an eginiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Onartzea Kontxi Uriarteren proposamena Ibarra herri bideen inbentarioaren gainbegiraketa eta zuzenketa egiteko, guztira 6.534 euroko zenbatekoagatik.

**BIGARRENA:** Agintzea Kontuhartzaitzari zenbateko hori 1.0000.602.454.00.01 2015 aurrekontu partidatik ordaintzea dagokion faktura iristen denean.

**HIRUGARRENA:** Jakinaraztea erabaki hau Kontuhartzaitza departamentuari

**LAUGARRENA:** Jakinaraztea erabaki hau Kontxi Uriarteri eta Sendo S.L.ri.

### **3.2 OINEZ IKASTOLARA SEINALEA**

Uzturpe Ikastolak “Oinez Ikastolara” ekimena abian du duela urte batzuetatik. LH 1eko ikasleak oinez joaten dira ikastolara gurasoen arteko ordezkari baten laguntzarekin. Ibilbidean zehar hainbat geltoki daude eta ikasleak bertatik jasotzen joaten dira, autobus baten modura, guztiak elkarrekin joateko.

Azken urteotan, ordea, ekimenak beherakada jasan du. Uzturpe Ikastolak ekimenari bultzada emateko helburuarekin, herriko plazan seinale bat jartzea eskatu dio Udalari, “Oinez Ikastolara” logoa duen seinalea.

Kontuan hartuta Ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak Paskin seinaleztapen



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

enpresari aurrekontua eskatu diola aipaturiko seinaleagatik.

Kontuan hartuta Paskinek 296,25 euroko zenbatekoa aurkeztu duela, BEZ barne.

Kontuan hartuta Ibarra Udala zenbateko hori 1.0000.422.444.01.00 2015 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2015eko azaroaren 6an eginiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Onartzea Oinez Ikastolara ekimenaren barnean seinalizazioak jartzeko Paskinen enpresak aurkeztutako aurrekontua, guztira 296.25 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

**BIGARRENA:** Agintzea Kontuhartzailtza departamentuari zenbateko hori 1.0000.422.444.01.00 2015 aurrekontu partidatik ordaintzea, dagokion faktura iristen denean.

**HIRUGARRENA:** Jakinaraztea erabaki hau Kontuhartzailtza departamentuari

**LAUGARRENA:** Jakinaraztea erabaki hau Paskine enpresari

### **3.3 MERKATARITZA. TAO MAKINA**

Merkatari elkartearen arabera TAO sistemak ez dio herriko merkataritzari laguntzen. Bezero asko erosi gabe joaten dira dendatik TAOko langileak isuna jarriko dien beldur. Merkataritza lagunduko duen sistema bat eskatzen du elkarteak.

Tolosan dagoen sistema bera planteatzen da Ibarra, hau da: TAOko makinan botoi bat egokitzea herritarrek erosketak egitera joateko aukerarekin.

Kontuan hartuta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak 2015eko irailean Gertekeri kontsulta egin ziola TAOko makinan merkataritzarako botoi hori jartzeko aukera planteatzeko.

Kontuan hartuta Gertekeri arduradunak aukera hori TAO makinan bai jarri daitekeela erantzun zuela.

Kontuan hartuta Udalaren esku geratzen dela zein TAO makinatan jarriko den aukera hori,



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

aparkaldiaren iraupena (15 min, 20 min,...) eta dohainikoa izango den ala ez.

Kontuan hartuta Gertekeko arduradunak honoko puntuak garbi utzi zituela, dohainiko zerbitzua izatea erabakiz gero:

- ✓ Parkimetroak tiketa dohainik emango luke Udalak ipintzen duen denbora tartean.
- ✓ Erabiltzaileak dohainiko TAOko tiketa makinan aterako balu, Udalak ipinitako denbora tarterako balioko lioke soilik. Erabiltzailea denbora luzeagoan geratu nahiko balu, dirua sartu beharko luke eta makinak kasu horretan, dohainiko denbora baino gehiago egongo litzatekeenez, lehenengo minututik kobratuko lioke.

Kontuan hartuta merkataritza sustatzeko aukera hori makina bakoitzean jartzeak 500 euro inguruko gastua suposatzen duela.

Kontuan hartuta 1.0000.226.431.00.06 2015 aurrekontu partida merkataritza sustatzeko ekintzetara bideratuta dagoela, bertan 12.000 euro izanik.

2015eko azaroaren 6an eginiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: TAOko bi makinatan egokitzea merkataritzarako aukera hori; bat, Euskal Herria 12 kaleko makinan eta, bestea, Zubizarreta aparkalekuko makinan.

BIGARRENA: EH 12 makinan 20 minutuko aparkaldia egokitzea eta Zubizarreta aparkalekuko makinan 30 minutuko aparkaldia egokitzea.

HIRUGARRENA: Agintzea Kontuhartzaitzari bi TAO makinatan aukera hau jartzearen gastua 1.0000.226.431.00.06 2015 aurrekontu partidatik ordaintzea.

LAUGARRENA: Aparkaldia dohainikoa ez izatea, baizik, erabiltzaileek aparkaldiaren minutu bakoitzeko zentimo bat ordaintzea.

BOSGARRENA: Jakinaraztea erabaki hau Kontuhartzaitzeta departamentuari

SEIGARRENA: Jakinaraztea erabaki hau merkataritza elkarteari.

### **3.4 MERKATARITZA. EGUBERRIAK: KANPAINA ETA ARGIAK**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

### **3.4.1) EGUBERRITAKO KANPAINA. TAO-KO TIKET BEREZIAK**

Ibarran TAO sistema ezarri zenetik, merkatariek euren salmentan duen eragin negatiboa nabaritu dute eta merkatarik elkartetik askotan eskatu izan diote Udalarik TAOko tiket bereziak ateratzea, elkarteko merkatariek bezeroen artean banatu ahal izateko.

Kontuan hartuta hilabete barru eguberriak direla, tokiko kontsumoa bultzatzeko eta herri bizia lortzeko helburuarekin, 2015eko irailaren 9an egindako bileran merkatarik elkartek Udalarik iazko kanpaina errepikatzea eskatu zion, honoko ezaugarriekin:

- ✓ Aurtengo kanpainen tiket guztiak ordu batekoak izatea, bakoitza 20 zentimoko balioarekin.
- ✓ Tiketak bezeroen artean banatzen dituen merkatarik bere saltokiaren zigilua jarriko die, merkatarik berak erantzukizun bat hartuta.
- ✓ Banatzen diren tiketak merkatarik beteko dituzte boligrafoz, banatzen diren momentuan, tiket bakoitza behin erabiliko dela bermatzeko.

2015eko azaroaren 6an eginiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Iazko kanpaina errepikatzea eguberritan, merkatariek hartutako konpromisoak kontuan hartuta.

**BIGARRENA:** Merkatarik elkartearekin adostea aterako diren tiket kopurua eta kanpainaren epea.

**HIRUGARRENA:** Jakinaraztea erabaki hau Kontuhartzaitza departamentuari

**LAUGARRENA:** Jakinaraztea erabaki hau merkatarik elkarteari.

### **3.4.2) EGUBERRITAKO ARGIAK**

2015eko urriaren 20an merkatarik elkartek honoko kaleetan argiak jartzea eskatu dio Udalarik:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

<b>KALEA</b>	
EH 2-7	URTERO JARTZEN DA
EH 12-13	URTERO JARTZEN DA
EH 18-25	EZIN DA JARRI
EH 26-41	URTERO JARTZEN DA
EH 42-53	URTERO JARTZEN DA
EH 62-75	UDALAK AURREZ GORDETA DUEN ARGIDUN TIRA BAT KONPONDU BEHAR LITZATEKE
SAN INAZIO 1-4	SAN INAZIO 8 KALEAN URTERO JARRI OHI DENA SAN INAZIO 1-4 ARTEAN JARRI
AZKUEKO ROTONDA	ROTONDAKO FAROLAN ARGIDUN IRUDIREN BAT JARRI DAITEKE, UDALAK AURREZ GORDETA DUENA
SAN BARTOLOME PLAZA	URTERO JARTZEN DA
UZTURRE AUZOA	EZIN DA ARGIDUN TIRA BAT JARRI, IRUDIREN BAT JARRI DAITEKEEN BEGIRATU BEHAR LITZATEKE ELEKTRIZISTAREKIN

2015eko azaroaren 6an eginiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Aintzat hartzea merkataritza elkarteak 2015eko urriaren 20an egindako eskaera eta EH 62-75 kalean, San Inazio 1-4 kalean, Azkueko rotondan eta Uzturre auzoan argiak jartzea, Udalak gordeta dituen argiren batzuk erabilia.

**BIGARRENA:** Jakinaraztea erabaki hau udal elektrizistari





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

HIRUGARRENA: Jakinaraztea erabaki hau merkatari elkarteari.

### **3.5 HONDAKINAK MERKATARIENTZAT KUBOAK. AURREKONTUA**

Kontuan hartuta Uzturpe Ikastolak eta Denda Berdeak hiri-hondakinen sailkapenerako honoko kubo handiak behar dituztela.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak almazenean jada ez dituela 120 L-ko kubo marroia ez eta 240 L-ko kubo grisarik.

Eskaera horiek aprobetxatuz, eta tamaina ezberdineko kuboak almazenean izatearren, ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak Id Wasteri aurrekontua eskatu dio honoko kubo hauengatik:

LITRO	HORIA	MARROIA	GRISA
240	1	1	1
120	1	1	-

Kontuan hartuta Id Wastek 354,53 euroko aurrekontua aurkeztu duela ingurumen teknikariak egindako eskaerari erantzunez.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.623.162.10.02 2015 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2015eko azaroaren 6an eginiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Onartzea Uzturpe Ikastolak eta Denda Berdeak hiri-hondakinen sailkapenerako eskaturiko kubo handiengatik Id Wastek aurkezturiko aurrekontua onartzea, guztira 354,53 euroko zenbatekoagatik.

BIGARRENA: Agintzea Kontuhartzaitza departamentuari zenbateko hori



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

1.0000.623.162.10.02 2015 aurrekontu partidatik ordaintzea, dagokion faktura iristen denean.

**HIRUGARRENA:** Jakinaraztea erabaki hau Kontuhartzaitza departamentuari

**LAUGARRENA:** Jakinaraztea erabaki hau Id Waster enpresari

### **3.6 01-108 LURSAIL PUBLIKOA**

2015eko urriaren hasieran ingurumen, merkataritza eta nekazaritzako zinegotziak ahozko eskaera bat jaso zuen. Antza, norbaitek 01-108 lursaileko zuhaitza bat moztu du eta eroritzeko arriskua du, bota gabe baitago.

Kontuan hartuta 01-108 lursaila publikoa dela eta bertan baratze bat egokituta duela herritarren batek.

Kontuan hartuta 2015eko urriaren 8an udal brigadako burua eta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikaria 01-108 lursailera gerturatu zirela eta bertan kokatuta dagoen baratze erabiltzailearekin hitz egin zutela.

Kontuan hartuta, baratze erabiltzaile den Felipe Menasalvas Reinosa jaunak adierazi zuenez, baratze hori 01-108 lursailean duela aspaldidanik, 30-35 urte gutxi gorabehera, garai hartan Udalean zegoen aguazilak baimenduta.

Kontuan hartuta, erabiltzailearen hitzetan, duela bi urte berak moztu zituela bertako hiru zuhaitz, ez bat, itzala ematen ziotela argudiatuta.

Kontuan hartuta hiru zuhaitz horiek eroriz gero ezbeharren bat gertatzeko arriskua dagoela.

Idazkariak jakinarazten du egoera hau legeztatu egin beharko litzatekeela eta horren inguruan hitzarmena sinatu behar dela.

2015eko azaroaren 6an eginiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LEHENA: Botatzea 01-108 lursaila publikoan moztuta dauden zuhaitz horiek

BIGARRENA: Zuhaitz horiek botatzearen gastua 01-108 lursailean dagoen baratzeko erabiltzailearen gain egozte.

HIRUGARRENA: Gogoraraztea 01-108 lursailean dagoen baratzeko erabiltzaile den Felipe Menasalvas Reinosa jaunari, lursaila publikoa baten aurrean gaudela eta Udalak lursail hori behar duen edozein unetan baratza bertatik kendu beharko duela.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri ematea Felipe Menasalvas Reinosa jaunari, 01-108 lursaileko erabiltzaile den ehinean.

#### **4.- 2015EKO URRIAREN 30EAN OBRA ETA ZERBITZU BATZORDEAK HARTURIKO DIKTAMENEN INGURUKO ERABAKIAK**

##### **4.1-IDOIAGA 3AN AUTOAK KONPONTZEKO ETA ERAKUSKETARAKO TAILERRARENTZAT JARDUERA SAILKATUAREN LIZENTZIA ETA OBRA LIZENTZIA**

Jarduera lizentziaren eskaera egin du Pedro M<sup>a</sup> Urquizar Peñagarikano Jaunak, Idoiaga kaleko 3 zk.an ibilgailuen konponketarako eta autoen salmentarako tailerra ezartzeko.

Baita ere eskatzen du lokalaren sarbidearen aldaketa baimentzea, hau da, espaloia beste puntu batean beheratzea. 1997ko martxoaren 11n Aldundiari eskatu zion baimena sarbide beheratua egiteko. 1997ko apirilean Aldundiak baimendu zion sarbidea egitea. Orain, beste atearen parean beste sarbide bat egiteko baimena eskatzen du, 7 mkoa.

- Aurkeztutako dokumentazioa honakoa da:
  - Jarduera proiektua insonorizazioaren aurrekontua erantsita..
  - Suteen aurka babesteko instalazioaren proiektua
  - Instalazio elektrikoaren proiektua.
  - Udal ordenantzak betetzearen justifikazioa
  - Gikesak egindako garaje sarrerako karga proba
- Guztira lanen aurrekontua 34.088,36 €koa da.
- Lokalaren azalera honakoa da:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Taller erabilera izango duen zonaren azalera:	266,37m <sup>2</sup> (Idoiaga 3)
Garaje erabilera :	144,20m <sup>2</sup> (Euskalerría 4)
Salmenta eta erakusketa:	177,14m <sup>2</sup> (Idoiaga 3)

Ikusita udal arkitektoaren ALDEKO txostena, non adierazten den onartu berri dagoen “*Ibarra* behe solairuetako lokaletan erabilera berriak baimentzeko ordenantzak”, Idoiaga 3an, 2. Kategoriako erabilera industrialia onartzen duela eta lokalak bertan ezarritako baldintzak betetzen dituela.

Ikusita Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren arabera IBILGAILUEN KONPONKETARAKO TAILERRA sailkatutako jardueren zerrendan jasotzen dela.

Ikusita sailkatutako jarduera bat ezartzeko (eta hedatzeko nahiz aldatzeko) jarduera-lizentzia beharrezkoa dela, eta formalizatzeko dagozkion arauetan zehaztutakoa bete beharko dela.

Ikusita Jarduera ezartzeko eskaeraren espedientea jendaurrean jarri dela eta zenbait bizilagunek alegazioak aurkeztu dituztela.

Ikusita alegazioei erantzuna eman zaiela eta ez dutela eraginik jardueraren ezarpenean.

Ikusita Eusko Jaurlaritzak egindako jarduera sailkatuen osasun-txostena ALDEKOA dela.

Ikusita Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ingurumen-txostenak ezartzen dituen neurri zuzentzaileak.

Ikusita udal arkitekto teknikoaren ALDEKO txostena.

2015eko urriaren 30ean eginiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

**ERABAKIA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**LEHENA:** Idoiaga 3an dagoen behe oineko lokalean ibilgailuen konponketarako (2. kategoriako industria jarduera) eta autoen salmentarako tailerra ezartzeko jarduera klasifikatuaren lizentzia ematea baldin eta honako baldintzak betetzen badira:

JARDUERARI DAGOKIONEZ:

1.- Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuko Ingurumen sailak ezarritako neurri zuzentzaileak beteko dira. Halaber, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei oro har aplikarrigarri zaizkien arau teknikoak onesten dituen 171/1985 Dekretuak, ekainaren 11koak, ezarritako baldintzak beteko dira:

a.- Lokala aireztatzeak ez die auzokoei usain, zarata edo bibrazioengatik eragozpenik sortuko.

b.- Orokorrean ez da zarata edo bibrazioengatik eragozpenik jasanaraziko.

c.- Komunetako ez besteko isurpiderik egotekotan hondakinentzako kanporako isurpidea baino lehen, solidoak eta koipeentzako aska bat jarriko da.

d.- Dekantagailua duen hidrokarburo eta koipe bereizgailua jarri beharko da ur-zikinen hustubidearen aurretik. Udal arkitektoak lokalean egindako ikuskaritzan ikusi zuen lokalean aspaldian kotxe garbiketarako egiteko arketa bereizlea jarrita dagoela baina ez da jaso egirietan eta ez da bere egoera aztertu.

e.- Koipeztaketa edo olio-aldaketak egin behar direnean, erabilitako olioak ontzitan bildu beharko dira. Horiek isurtzea debekatuta dago.

f.- Makinak lurlean lotzea dardaren kontrako elementuen bidez egingo da, dardarizua eraikinaren egiturara eta hurbileko lokal eta etxebizitzetara iristea eragotziz.

g.- Hurbileneko etxebizitzetako logela, egongela eta sukalde barnean ez da gaindituko 40 eta 30 dB(A)ko balioa, hots maila jarraitu baliokidean neurtuta (Leg 60-s), ez eta 45 eta 35 dB(A)ko gehieneko soinu maila ere, eguna 22.00ak arte eta gaua 8.00ak arte jota. Dena dela, gai horri buruzko udal arautegirik baldin badago, hori ere bete beharko da.

h.- Debeekatuta dago autoen pintaketa egitea.

i.- Hondakin arriskutsuak (erabilitako koipeak, frenoen likidoak, bateriak, isuriak dituen zerrautsak, zapi zikinak...) banatuta eta ontzi egokietan jasoko dira, dagozkien etiketak jarrita, jasotzaile baimenduak eraman arte. Halaber, hondakin industrial geldoak, baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio.

j.- Debeekatuta dago edozein motatako lana kanpoan egitea, baita konpontzeko edo konponduta dauden ibilgailuak bide publikoan aparkatzea ere.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

2.- Suteen aurkako segurtasuneko araudiari dagokionez, proiektuak jasotzen duena beteko da, eta gainera:

a.- Su-itxalgailuek honakoa beteko dute:

- . Efikazia: 21 A
- . 15 metrora 1
- . Koadro elektrikoaren ondoan CO<sub>2</sub>-ko bat.

b.- B.I.E bat jarriko da: DN 25 mm, aldiberekotasuna 2, 60 min.-ko autonomia.

c.- Larrialdirako argiak jarriko dira.

d.- Irteerak nahiz suteen aurka babesteko instalazioak seinaleztatu beharko dira.

3.- Lantokietako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 ERREGE DEKRETUAK ezarritakoa beteko da.

4.- Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak ezarritakoa beteko da. Araudia betetzen dela egiaztatuko duen ziurtagiri teknikoa aurkeztu beharko da. Erantzunkizuna ziurtagiria sinatzen duen teknikariarena eta sustatzailearena izango da.

5.- Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzen duen martxoaren 17ko 314/20016 Errege Dekretuak ezarritako arau teknikoak beteko dira. Araudia betetzen dela egiaztatuko duen ziurtagiri teknikoa aurkeztu beharko da. Erantzunkizuna ziurtagiria sinatzen duen teknikariarena eta sustatzailearena izango da.

A) JARDUERA MARTXAN JARRI AHAL IZATEKO

6.- Jarduera sailkatuetarako lizentzian agindutako neurri zuzentzaileak ezarrita daudenean eta instalazioak egokituta daudenean, jarduerari ekin ahal izateko, aurrekomunikazioaren araubidea bete beharko da eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a.- Obra amaitu ondoren eta jarduera martxan jarri aurretik **aldez aurreko Komunikazioaren inprimakia**.

b.- Teknikari gaituak emandako ziurtagiria (**Ziurtagiri Teknikoa inprimakia**) egiaztatzen duena jarduerak edota instalazioak bat datozela aurkeztutako eraikitze-proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin, eta ezarri zaizkion neurri zuzentzaileekin.

c.- **Homologatutako enpresa batek eginiko saiakuntza akustikoa** aurkeztu beharko da eta gainean dauden lokaletan gehieneko emisio zarata zenbatekoa den zehaztu beharko da:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- ✓ Tailerraren gainean dauden etxebizitzetan.
- ✓ Tailerraren gainean dauden elementu amankomunetan.
- ✓ Garajearen gainean dagoen masajeak emateko lokalean.
- ✓ Kalean

Gainera, honako saiakuntzak ere aurkeztu beharko dira:

- ✓ Talka-saiakuntza (gutxienez 40 dB(A))
- ✓ Airetiko zarataren kontrako gutxienerako isolamendua Dnt,A. (gutxienez 60 dB(A)).

d.- Instalakuntza elektrikoaren boletina, Industri Lurralde Ordezkaritzan inskribatutako eta baimendutako instalatzaileak izenpetuta.

e.- Barruko ur instalakuntzen proba ziurtagiria, Industri Lurralde Ordezkaritzan inskribatutako eta baimendutako instalatzaileak izenpetuta.

f.- Berokuntza, klimatizazio, aireztapen eta estrakzio instalakuntzen proba ziurtagiria, Industri Lurralde Ordezkaritzaren inskribatutako eta baimendutako instalatzaileak izenpetuta.

g.- Eskumena daukan teknikariak emandako ziurtagiria, egiaztatze jardura edota instalazioak bat datozela aurkeztutako proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin, eta ondo betetzen dituztela ingurumenarekiko betebeharrak guztiak eta beste araudi guztiak.

h.- IAE n alta.

i.- Suteen aurkako babes sistemak mantentzeko kontratuaren kopia.

7.- Konponketa lanak kanpoko atea itxita egingo dira zarategatik eragozpenak ez sortzeko.

8.- Proiektuan azaltzen ez diren lanak edo aldaketa txikiren bat sartu baldin bada, obra amaierako planoak aurkeztuko dira, aldaketak zehazten dituen txosten batekin. Lokalaren isolamendua proiektuan jasotzen denarekin nahikoa ez bada, egindako aldaketen txostena eta balorazioa aurkeztu beharko da.

9.- Komunikazioa eginda dagoela, komunikazioa aurkeztu den egunetik bertatik has daiteke gauzatzen jardura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administrazio Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71 bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

10.- Jardura hastea jardueraren titularren eta ziurtagiria eman duten teknikarien ardurapean egingo da, erabat.

**BIGARRENA:** Proiektuan azaldutako obrak egiteko baimena ematea. Honako baldintzak bete beharko dira:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- 1.- Beharrezko gertatzen diren segurtasun neurriak hartu beharko dira eta horren ezarpena segurtasun gaietan indarrean dauden arauetan xedatuei jarraiki egingo da, bereziki Urriaren 24ko 1627/1997 Erret Dekretua, eraikuntza lanetan gorde behar diren segurtasun eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituenak.
- 2.- Obrak direla eta bide publikoetako zolatu edo bestelako elementurik kaltetuko balitz, berriro exekutatu edo kokatu beharko litzateke, ezaugarri berdinekoa jarritz.
- 3.- Lanak egiterakoan, enpresa edota autonomo batek baino gehiago parte hartzen badu, sustatzaileak, lanak hasi aurretik, segurtasun eta osasun arloko koordinatzaile bat izendatu beharko du.
- 4.- Edukiontzien eta bide publikoa okupatuko duten gainerako beste elementuek udal tasak izango dituzte. Obra hasi baino lehen, bide publikoa okupatzeko lizentzia eskatu beharko da udaletxe honetan. Eskarera, zein elementu jarriko diren, okupatuko duten azalera eta okupazioaren iraupena azalduko dira.
- 5.- Debekatuta dago zaborrak udal edukiontzietara botatzea.
- 6.- Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketa arautzen duen otsailak 1eko 105/2008 Errege Dekretuak dioena bete beharko da.

**HIRUGARRENA:** Espaloitik 7m luzerako sarbide berria baimentzea. Honako baldintzak bete beharko dira:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu beharko zaio baimena bigarren sarbidea egiteko.
- 2.- Lan horien balorazio ekonomikoa aurkeztu beharko da ez baitu proiektuak jasotzen.
- 3.- Eskatzaileak bere kontu egin beharko ditu espaloien gaineko lan horiek eta bolardoak jarri beharko ditu kotxeen bidea zehazteko. Margoketa lanak ere egin beharko ditu.
- 4.- Atearen zabalerari dagokion ibilgailuen sarrera-irteera tasa ordaindu behako du urtero.

#### **4.2- ERAIKIN PRIBATUETAN PINTADAK**

Ikusita eraikin pribatuetan pintadak egiten dituztela eta eraikin batzuen jabeek udalari eskatzen diotela pintadak kentzea.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Ikusita duela gutxi Udalak herriko pintadak kendu dituela.

Ikusita beharrezkoa dela zehaztea ekintza hauen aurrean nola jokatu eta irizpideak ezartzea.

2015eko urriaren 30ean eginiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

**BAKARRA:** Aztertzea beste herritan nola jokatzen duten ekintza horien aurrean.

### **4.3 IBAIGAINENKO ESPALOI BERRIAN BARANDA JARTZEKO LANEN ESLEIPENA**

Ikusi da Ibai Gain 1 inguruko espaloia zabaldu ondoren, baranda jartzea komenigarria dela. 26,50 m inguru dira. Inoxidablezkoak, 304 kalitatean jartzea proposatzen da etorkizunean mantentze lanak murrizteko.

Inoxidablezko barandak jartzeko hiru enpresei eskatu zaie aurrekontua eta honako hauek dira beraien eskaintza ekonomikoak:

Hermanos Yeregui , C.B.....130,52 €/ml x 26,50 ml .....3.458,85 € (%21 BEZ barne)

Herreria Mitxel.....143,99 €/ml x 26,50 ml.....3.815,74 € (%21 BEZ barne)

Arribe errementariak, S.L.....kurban...135,82 €/ml x 10,50 ml.....1.426,14 €

Zuzen...118,58 €/ml x 16,00 ml.....1.897,28 €

3.323,42 € (%21 BEZ barne)

2015eko urriaren 9an eginiko Gizarte zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**LEHENA:** Ibai Gain 1 inguruan baranda jartzeko lanak Arribe errementariak, S.L enpresari esleitzea 3.323,42 €tan (%21 BEZ barne) eskaintza merkeena baita. Lan hauek 1 0000.601.153.20.04 2015 partidatik finantzatuko dira.

**BIGARRENA:** Jakinaraztea erabaki hau aurrekontua aurkeztu duten enpresei: Hermanos Yeregui , Herreria Mitxel eta Arribe errementariak, S.L.

## **5.- 2015EKO URRIAREN 9AN GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEAK HARTURIKO DIKTAMENEN INGURUKO ERABAKIAK**

### **5.1 ZUZKIDURAKO BIZITOKIKO KANONEN BERRIKUSPENA**

Euskal Herria 18 an kokaturik dagoen zuzkidurazko bizitokiko maizterren kanonak berrikusteko epea amaiturik, berrikuspena egin da eta honako emaitza lortu da:

<b>ETXEA</b>	<b>2015</b>	<b>2014</b>
2.G	150 €	150 €
1.B	200 €	200 €
3.E	250 €	200 €
4.C	150 €	150 €
3.G	300 €	300 €
1.C	150 €	150 €
2.F	200 €	200 €
2.B	150 €	150 €
1.G	300 €	300 €
4.D	300 €	300 €
4.E	300 €	300 €
1.D	250 €	250 €
1.A	Ez aukeztua	
1.F	250 €	200 €
3.D	utzita	
ATICO B	250 €	200 €
3.F	150 €	150 €
4.G	utzita	
ATICO D	150 €	150 €



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

3.B	150 €	150 €
2.A	Arazoak haziendarekin	
4.B	150 €	150 €
2.C	150 €	150 €
4.F	300 €	300 €
3.A	150 €	150 €
4.A	150 €	150 €
ATICO A	250 €	200 €
ATICO C	250 €	250 €
3.C	240 €	300 €
2.D	350 €	250 €
1.E	250 €	250 €
2.E	150 €	150 €
IGO EGIN DA KANONA		
JEITSI EGIN DA KANONA		

2015eko urriaren 9an eginiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Euskal Herria 18 kokaturik dagoen zuzkidurazko bizitokiko maizterren kanonen berrikuspena onartu eta aplikatzea

**BIGARRENGOA:** Erabaki hau jakinarazi Kontuhartzailletza eta Zergabilketa sailei.

### **5.2-LANKIDETZA, %1EKO DIRULAGUNTZA**

Ibarratik Misio Taldeak, ohiko hiru proiektu aurkeztu dituzte lankidetzako %1eko dirulaguntza eskatuz. Honako proiektu hauek azaldu dituzte:

- India: Bordumsa, arunachal Pradesk. “Kontsultategi baten eraikuntza”
- Ecuador: Santa Rosa del Oro. “Construccion de la cooperativa de ahorro y crédito “familia solidaria”
- Honduras. Suyapa. Bethel, “Ur depositoa, etxeak eta mantenua”



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

AURREKONTUA 2015	44.375 €		
	AURRIKUSIA	GASTATUA	LOTUA
TICHLA PROIEKTUA SENIDETZEA	12.060,00 €		12.060,00 €
TICHLA BIDAIA			- €
TICHLA BIDAIAREN GASTUAK			- €
EUSKAL FONDOA KUOTA	1.311,03 €	1.311,03 €	- €
EUSKAL FONDOA PROIEKTUA	6.000,00 €	6.000,00 €	- €
OPORRAK BAKEAN su bolak	50,00 €	50 €	- €
OPORRAK BAKEAN BI HAUR JARDUERAK			
IBARRATIK MISIO TALDEA	19.200,00 €	- €	19.200,00 €
<b>DENERA</b>	38.621,03 €	7.361,03 €	31.260 €
<b>ERABILGARRIA</b>	5.753,97 €		

Honen aurrean, IBARRATIK MISIO TALDEAri 19.200 euro ematea proposatzen dute mahaikideek 2015. urte honetarako.

2015eko urriaren 9an eginiko Gizarte zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

LEHENGOA: Onartzea IBARRATIK MISIO TALDEAri, 19.200 euroko dirulaguntza ematea aurkeztu dituzten hiru proiektuei aurre egiteko .

BIGARRENGOA: Erabaki hau jakinarazi Kontuhartzailletza sailari eta ordainketa 313.05.01 partidara egozte.

### **5.3- LAGUNTZA TEKNIKOAK LAGATZEKO HITZARMENA. FUNDACIÓN PEÑASCAL**

IBARRAKO Udalak eta beste Udal batzuek zenbait zerbitzu eskaintzen diete ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna duten kolektiboari, pertsona horien autonomia handitzeko asmoz.

Zerbitzu horien artean daude “laguntza-produktuak” izenekoak, zeinak honela definitzen diren: “ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna duten pertsonen zuzendutako tresna, ekipamendu edo sistema oro, ezgaitasun edo/eta mendekotasun hori prebenitu, orekatu, arindu edo ezabatzeko asmoarekin”.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak programa bat dauka laguntza-produktuen hornidurarako. Hala ere, ospitaleko altak, ustekabeen eta bat-batean gertatutako mendekotasunak (iktusak, istripuak...) eta horien antzeko egoeren larritasunaren aurrean, udalek, herritarrengandik hurbil egonik, berehalako erantzuna eman dezakete, eta batzuetan aldi baterakoa, harik eta Aldundiak ebatzi eta produktuak eman arte, pertsona horiei arreta beren etxean bertan emanez.

IBARRAKO UDALA eta Tolosaldeako beste udal batzuk zerbitzu hau ematen ari dira modu prekarioan, zenbait pertsonen, gehiago behar ez dituztelako, emandako produktuez baliatuta.

Zerbitzu hau hartzen ari den tamaina ikusita, bai Ibarra Udalak bai Tolosaldeko beste udal batzuek uste dute beharrezkoa dela programaren kudeaketa hobetzea gauza hauen bitartez: laguntza-produktuen biltegi bakarra, mantentze egokia, erantzukizun zibileko estaldura...

PEÑASCAL KOOPERATIBAK, kontuan harturik bere lan-prestakuntzako jarduera, eta, zehatzago, bere Eguneko Zentroko eta gizarteratze-enpresako jarduera, laguntza eman dezake, hurbiltasunez eta kalitateaz, Tolosaldeako herritarrentzako gizarte-baliabideen eskaintzan, eta horrela erantzuna eman diezaiolke bere lan-jardueraren subjektuek, alegia, baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden kolektiboek daukaten jarduera-nitxoak bilatzeko premiari...

Zerbitzu honen kostua, Tolosaldeko udalerrien artean finantzatuko da errolda kopuruaren arabera. Ibarra kasuan, 30,19 euroko kostua izango du hileko .

2015eko urriaren 9an eginiko Gizarte zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

#### ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea **PEÑASCAL kooperatibarekin** ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna duten kolektiboek, pertsona horien autonomia handitzeko beharrezko den hitzarmena sinatzea

BIGARRENGOA: Zerbitzua berria denez ez dago partida zehatzik, baina etxez etxeko laguntza partidatik ordaintzea eskatzen dute mahaikideek. 2015erako 181,14 euroko kostua izango du.

#### I- ERANSKINA



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

IBARRAn, 2016eko urtarilaren 1ean

IBARRA, a 1 de enero de 2016

## BILDURIK

Alde batetik, MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA, Ibarrako alkatea.

Bestetik, Guillermo Malcorra Altuna, ordezkatzeko duelarik PEÑASCAL KOOPERATIBA, I.F.K. F-48537518 eta helbidea TOLOSAKO Usabal Industrialdea hegoa 5C-n duena.

Hitzarmen hau formalizatzeko beharrezkoak diren gaitasun juridikoa eta jardutegoa elkarri aitortuta, nork bere erakundearen izenean jardunez,

## ADIERAZTEN DUTE

IBARRAKO UDALAK eta TOLOSALDEKO beste Udal batzuek zenbait zerbitzu eskaintzen dizkietela ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna dutenen kolektiboari, pertsona horien autonomia handitzeko asmoz.

Zerbitzu horien artean daude "laguntza-produktuak" izenekoak zeinak honela definitzen diren: "ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna duten pertsonen zuzendutako tresna, ekipamendu edo sistema oro, ezgaitasun edo/eta mendekotasun hori prebenitu, orekatu, arindu edo ezabatzeko asmoarekin".

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak programa bat dauka laguntza-produktuen hornidurarako. Hala ere, ospitaleko altak, ustekabeen eta bat-batean gertatutako

## REUNIDOS

De una parte, MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA, Alcalde del AYUNTAMIENTO DE IBARRA,

De la otra, Guillermo Malcorra Altuna, en representación de PEÑASCAL COOPERATIVA, N.I.F. F-48537518, con domicilio en Polígono Usabal sur 5C - TOLOSA

Reconociéndose ambas partes capacidad jurídica y de obrar necesaria y suficiente para la formalización del presente convenio, en las calidades con que actúan,

## MANIFIESTAN

Que EL AYUNTAMIENTO DE IBARRA y otros Ayuntamientos de TOLOSALDEA ofrecen diversos servicios a colectivos con discapacidad y/o dependencia, con el objetivo de favorecer su autonomía personal.

Entre los diferentes servicios, están los denominados "productos de apoyo", que se definen como "todo instrumento, equipamiento o sistema técnico destinado a personas con discapacidad y/o dependencia, destinado a prevenir, compensar, aliviar o eliminar dicha discapacidad y/o dependencia.

El Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipúzkoa dispone de un programa de provisión de productos de apoyo. Sin embargo, ante la urgencia en situaciones como altas



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

mendekotasunak (iktusak, istripuak..) eta horien antzeko egoeren larritasunaren aurrean, udalek, herritarrengandik hurbil egonik, berehalako erantzuna eman dezakete, eta batzuetan aldi baterakoa, hariak eta Aldundiak ebatzi eta produktuak eman arte, pertsona horiei arreta beren etxean bertan emanez.

IBARRAKO UDALA eta TOLOSALDEKO beste udal batzuek zerbitzu hau ematen ari dira modu prekarioan, baliatuta zenbait pertsonen, gehiago behar ez dituztelako, emandako produktuez.

Zerbitzu hau hartzen ari den tamaina ikusita, bai IBARRAKO Udalak bai TOLOSALDEKO beste udal batzuek uste dute beharrezkoa dela programaren gestioa hobetzea gauza hauen bitartez: laguntza-produktuen biltegi bakarra, mantentze egokia, erantzukizun zibileko estaldura...

PEÑASCAL KOOPERATIBAK, kontuan harturik bere lan-prestakuntzako jarduera, eta, zehatzago, bere Eguneko Zentroko eta gizarteratze-enpresako jarduera, laguntza eman dezake, hurbiltasunez eta kalitateaz, TOLOSALDEKO herritarrentzako gizarte-baliabideen eskaintzan, eta horrela erantzuna eman diezaiokete bere lan-jardueraren subjektuek, alegia, baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden kolektiboek daukaten jarduera-nitxoak bilatzeko premiari...

IBARRAn dituen instalazioek aukera ematen diote ezgaitasunean eta/edo mendekotasunean laguntzeko elementu-kopuru handia biltegitzeko. Era berean, metal-arloan egiten duen jarduerak aukera ematen du elementu horiek mantentzeko.

IBARRAKO Udalak eta TOLOSALDEKO beste udal batzuek interesgarritzat jotzen dute PEÑASCAL KOOPERATIBAK gizarte-bazterketako egoeran edo hala egoteko arriskuan dauden kolektiboekin egiten duen lana. Hori dela-eta, bidezkotzat jotzen dute harremanak arautzeko Lankidetzaren hitzarmen bat egitea, honako klausula hauekin:

## **KLAUSULAK**

GB 2015 11 13

hospitalarias, dependencias sobrevenidas de forma inesperada (ictus, accidentes...), los ayuntamientos por su proximidad a la ciudadanía pueden dar una respuesta inmediata, y en ocasiones temporal hasta la resolución y entrega por parte de Diputación, facilitando la atención de dichas personas en su domicilio.

Este servicio se está ofreciendo de forma precaria desde el AYUNTAMIENTO DE IBARRA, y otros de TOLOSALDEA, valiéndose de productos de apoyo donados por personas que ya no los precisan.

Ante la magnitud que está adquiriendo este servicio, tanto el Ayuntamiento de IBARRA, como otros Ayuntamientos de TOLOSALDEA consideran que es necesario mejorar la gestión del programa, con un almacén único de los productos de apoyo, gestión de préstamos, adecuado mantenimiento, cobertura de responsabilidad civil....

PEÑASCAL COOPERATIVA, desde su actividad formativa laboral, y más en concreto desde su actividad de Centro de Día y empresa de inserción, tiene posibilidad de contribuir en la oferta de recursos sociales a la ciudadanía de TOLOSALDEA, cercana y de calidad, dando así mismo respuesta a la necesidad de buscar nuevos nichos de actividad para los colectivos en exclusión o riesgo de exclusión con los que trabaja.

Sus instalaciones en IBARRA, les permite almacenar un gran número de elementos de apoyo para la atención a la discapacidad y/o dependencia. Así mismo, su actividad en el campo del metal, posibilita el mantenimiento de dichos elementos.

El Ayuntamiento de IBARRA y otros ayuntamientos de TOLOSALDEA, consideran de interés la labor realizada por PEÑASCAL COOPERATIVA con los colectivos en situación o en riesgo de exclusión social, por lo que estiman procedente establecer un Convenio de colaboración que regule sus relaciones, con arreglo a las siguientes:

## **CLÁUSULAS**

### **PRIMERA.- DEFINICIÓN DEL**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **LEHENA - ZERBITZUAREN DEFINIZIOA**

PEÑASCAL KOOPERATIBAK kudeatuko du ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza-produktuen biltegia, TOLOSALDEKO udalen jabetza dena, lan hauek egingo dituelarik: laguntza-produktu hauek bildu, biltegitatu, inbentariatu, garbitu, konpondu eta entregatu.

## **BIGARRENA - ZERBITZUAREN KOSTUA**

Zerbitzua hiru ataletan banatuko da:

### **1.- Biltegitratzea, kontrola, garbiketa eta prebentziozko mantentzea.**

TOLOSALDEKO udalek emandako inbentarioaren arabera, PEÑASCAL KOOPERATIBAK toki bat erreserbatu du inbentario horretan zerrendatutako produktuentzat. Era berean, elementu guztiak kontrolatuko ditu informatikoki.

Kontrol horrek barruan hartzen ditu gauza eginkizun hauek: prebentziozko mantentzea, ikusizko gainbegiratzea, mekanismo eta engranajeak doitztea, artikulazioak koipeztatzea eta laguntza-produktuen garbiketa orokorra.

PEÑASCAL KOOPERATIBAK Erantzukizun Zibileko aseguru bat edukiko du estaltzeko elementuen egoeraren ondorioz erabiltzaileei sor dakiekeen edozein ezbehar. Zerbitzu honen kostua da 300 €/hil.

## **SERVICIO**

PEÑASCAL COOPERATIVA gestionará el almacén de productos de apoyo para personas con discapacidad y/o dependencia, propiedad de los Ayuntamientos de TOLOSALDEA, realizando tareas de recogida, almacenamiento, inventario, limpieza, reparación y entrega de dichos productos de apoyo.

### **SEGUNDA - COSTE DEL SERVICIO**

El servicio se dividirá en tres apartados:

#### **1.- Almacenamiento, control, limpieza y mantenimiento preventivo.**

Según inventario facilitado por los ayuntamientos de TOLOSALDEA PEÑASCAL COOPERATIVA ha establecido un espacio reservado para los productos relacionados en el mismo. Así mismo, realizará un control informatizado de todos los elementos.

Incluye el mantenimiento preventivo, supervisión visual, ajuste de mecanismos y engranajes, engrase de articulaciones y limpieza general de los productos de apoyo.

PEÑASCAL COOPERATIVA contará con un seguro de Responsabilidad Civil que cubrirá cualquier percance que el estado de los elementos pueda generar en las personas usuarias. Este servicio está valorado en 300 €/mes.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## 2.- Mantentzea eta konponketa bereziak

Elementuren batek esku-hartze berezia behar duenean, PEÑASCAL KOOPERATIBAK hornitzaile egokia bilatuko du eta IBARRAKO UDALARI jakinaraziko dio, honek aurkeztutako aurrekontua onar dezan, hala badagokio.

Balorazioa egiten, teknikariak bilatzen eta zerbitzua enkargatzen eta ordaintzen egindako lana PEÑASCAL KOOPERATIBAK egingo du eta, behin konponduz gero, konponketaren kostua fakturatuko dio IBARRAKO UDALARI.

## 3.- Etxera eramatea

Aukeran, laguntza-produktuak PEÑASCAL KOOPERATIBAKO biltegian jaso edo entregatu ahal izango dira, edo, bestela, aukera dago PEÑASCAL KOOPERATIBA arduratzeko etxera eramateaz, laguntza-produktua nola erabiltzen den azaltzeaz eta/edo jasotzeaz.

Horretarako, tarifa bat ezarri da zonaldeka, kostu desberdinekin:

- IBARRA.....20,00 €
- Asteasu..... 35,00 €
- Berastegi.....35,00 €
- TOLOSALDEKO besteak.....30,00

€

Tarifa, hala behar bada berari dagokion BEZ mota gehituta, Udal bakoitzaren irizpidearen arabera ordainduko da (segun erabiltzaileak bizilekua non duen), ordaintzailea izango delarik edo erabiltzailea edo zerbitzua eskatu duen Udala.

## 2.- Mantenimiento y reparaciones específicas.

Cuando algún elemento necesite intervención específica, PEÑASCAL COOPERATIVA buscará al proveedor adecuado pasando aviso al AYUNTAMIENTO DE IBARRA para que en su caso acepte el presupuesto presentado.

El trabajo de valoración, búsqueda de técnicos y encargo y pago del servicio lo realizará PEÑASCAL COOPERATIVA, y una vez reparado, facturará el coste de la reparación al AYUNTAMIENTO DE IBARRA.

## 3.- Entrega a domicilio.

De manera optativa, se podrá recoger o entregar los productos de apoyo en el almacén de PEÑASCAL COOPERATIVA, o habrá la posibilidad de que PEÑASCAL COOPERATIVA se ocupe de la entrega a domicilio, correspondiente explicación de uso del producto de apoyo, y/o recogida.

A tal efecto se establece una tarifa por zonas de entrega con diferentes costes:

- IBARRA.....20,00 €
- Asteasu..... 35,00 €
- Berastegi.....35,00 €
- Resto de TOLOSALDEA.....30,00 €

